



EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROA. OTSAILA



2023											2024
Mart.	Apir.	Maia.	Eka.	Uzta.	Abuz.	Irail.	Urri.	Azar.	Aben.	Urta.	Otsa.
98,2	93,5	87,7	84,6	85,6	85,7	88,3	88,4	86,0	83,1	83,6	82,0

EAEko ekonomiaren termometroak 82,0ko balioa izan zuen otsailean, eta, hala, beste hilabete batez egon zen hazkunde leuneko eremuan, nahiz eta aurreko hilabetearen azpitik kokatu. Nabarmentzekoa da kontsumoan eginiko gastuaren hazkunde sendoa, inbertsioaren eta kanpo sektorearen bilakaera neurritsuagoak orekatzen baitu. Sektore mailan, eraikuntza eta zerbitzuak dira jarduera ekonomikoaren buru, eta industriak, berriz, dinamismo txikiagoa erakusten du. Enpleguak, sektoreen artean modu desberdinean bada ere, sendo hazten jarraitzen du, EAEko ekonomiaren joera positiboaren isla.



Oharra: EAEko ekonomiaren termometroaren egiteko hileko bakoitzaren lehen egunetan eskuragarri dagoen informazioa erabiltzen da.

